

Berdintasun arloa

HELBURUAK

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Berdintasun Arloaren bidez, udalerriko emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasun benetakoaren eta eraginkorraren alde lan egiteko konpromisoa hartu du. Sexuaren ziozko diskriminazio egoerak sorrarazten dituzten egiturak eta trabak aldatzeari ekingo dio horretarako.

Amorebieta-Etxanoko Berdintasunerako Zerbitzu honek garatzen diren ekintza, egitarau eta politika guztien plangintzetan, elaborazioan eta ebaluaketan generoaren perspektiba eranstearen alde jardungo du. Sexuaren aldagaiari eta emakumeek eta gizonak bizi dituzten baldintzei, egoerei eta beharriaz erreparaturik egingo du errealitatearen analisia esparru guztietan: Hezkuntza, Enpleguan, Aisialdian, Osasunean, Kulturaren...

Emakumeen eta gizonen Aukera-Berdintasunerako lehenengo Planak (2007-2010), Udaleko Osoko Bilkurak 2007ko maiatzaren 9an onetsia bera, emakumeen egoerak esparru guztietan hobetzen lagunduko duen ekintza sorta biltzen du. Helburuen artean, honakoak ditu: Emakumeek espazio publikoan duten partaidetza handiagoa izatea, bai eta gizonen ere, etxeko lanetan eta zainketa gaietan.

Plana garatzeko tenorean, udalaren arlo guztiak eta udalerriko gizarte, kultura eta kirol erakundeak egongo dira inplikaturik, eta hiritarrak orokorrean ere bai.

[Dokumentua: I PLANA](#)

NORI DAGO ZUZENDUTA?

- Amorebieta-Etxanoko pertsona guztiei, gai honi dagokionez proposamenen edo kezkaen bat baldin badute.
- Udal- langileei eta udalaren zerbitzuei.
- Udalerriko erakunde publiko eta pribatuei, hiritarrentzako zerbitzugintzan badihardute eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea interesatzen bazaie:
 - ◆ Gizarte, Kultura eta Kirol Elkartei eta Erakundeei.
 - ◆ Hezkuntza Zentroeiei eta Osasun Zentroeiei.
 - ◆ Enpresei...

NON DAGO?

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Udal Zerbitzua Gizarte Ongizate Sailaren barruan dago, eta hauxe du helbide:

Nafarroa Zentroa

Nafarroa kalea z/g

Amorebieta-Etxano

Telefonoa: 94 6300190

Faxa: 94 6300576

e-posta: ongizatea@amorebieta.net

SENSIBILIZAZIO KANPAINAK:

- [Maiatzaren 28a](#)
- [Azaroaren 25a](#)

BESTE LOTURA BATZUK

* [Emakunde](#) (Emakumearen Euskal Erakundea)

* [Emakumeen Estatuko Institutua](#) (Instituto de la Mujer Estatal)